

1. Informazioa eta datuen tratamendua

1.2. Informazioaren, datuen eta eduki digitalen ebaluazioa :

1.2.2. Informazio baliabideen ebaluazioa

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

Informazioa eta datuen
tratamendua.
Nabigazioa, bilaketak eta
informazioaren filtratzea,
datuak eta eduki digitalak

INFORMAZIO BALIABIDEEN EBALUAZIOA




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



Iturri desberdinetako informazioa ebaluatzea
(biblioteketako katalogoak, informazio zientifikoaren
atariak, datu baseak, Internet).

Informazio hori egiaztatu gabeko beste iturri batzuekin
konparatu.

Informazioarekin kritikoa izaten ikasi.

LABURPENAK

- Bilaketa tresnak eta biblioteketako katalogoak.
- Informazio atariak eta datu baseak.
- Internet

SARRERA

Kalitatezko informazioa eskaintzen digutenak dira informazio iturri fidagarrienak. Hauen artean daude:

- Bibliotekako informazio baliabide desberdinetan bilaketa integratua egiteko gai diren katalogo eta bilaketa tresnak
- Informazio atariak eta datu base zientifiko-teknikoak
- Biltegi instituzionalak
- Kaudimen egiaztatua duten webguneak
- Google Akademikoa bezalako bilaketa-motore akademikoak



Informazio iturri horien ezaugarri nagusiak ezagutzea, informazioa ebaluatzeko lehen urratsa da.

BILAKETA TRESNAK ETA BIBLIOTEKETAKO KATALOGOAK

Biblioteketako [bilaketa tresnek](#) bibliotekek aukeratutako baliabide guztietan bilatzeko gai den teknologia dute. Tresna hauek Bibliotekako katalogoan nahiz harpidetutako testu osorako sarbidea duten edo bibliotekak garrantzitsutzat hautatutako informazio baliabideen bilaketa errazten dute (liburu eta aldizkari elektronikoen bildumak, sarbide irekiko biltegi zientifikoak, etab.)

[Katalogoak](#), bibliotekak eskuratutako informazioa biltzen du, bai digitalki eta baita paperean ere. Erositako dokumentazioa izan ohi da, Bibliotekan betirako egongo dena. Liburuak, aldizkariak, nahiz irakasleek gomendatutako bibliografia aurkitzeko tresna oso baliagarria da.



Bibliotekako katalogoa eta bilaketa tresnak, irakasle nahiz liburuzainek egiaztatutako kalitatea duten informazio baliabide fidagarriak dira.



INFORMAZIO ATARIAK ETA DATU BASEAK



Informazio atariak eta datu baseak informazio zientifikoa eskuratzeko eta kasu askotan testu osora sarbidea izateko aukera ematen dute.

Zure beharren arabera egokienak hautatzeko irizpideen artean dira, besteak beste: hizkuntza, esparru tematiko, kronologiko eta geografikoa, edukia eta datu base erreferentziala den (hau da, erreferentzia bibliografikoak dituen) edo testu osoa biltzen duen ala ez.

MU Bibliotekak estatuko eta nazioarteko [informazio atari eta datu base](#) nagusietara sarbidea ematen dizu. Hauetan, zure espezialitatearekin bat datozen artikulu eta informazio zientifikorik garrantzitsuenak biltzen dira.

Datu-baseek kalitatezko iragazki batzuetatik pasa den informazio zientifikoa jasotzen dute, hala nola, arloan adituek berrikusi izana.



DATU BASEAK

Datu baseek eskaintzen duten informazioa kalitatezkoa den arren, batzuetan, lortutako emaitzak hain ugariak izanik, aurkitutako informazioa zure beharretara egokitzeko, bilaketa aurreratua eta iragazkiak erabiltzea komenigarria da.




Zure irakasleei galdetu diezaiekezu zure beharretara egokitzen den informazioa zein den. Gogora ezazu [bibliotekaren laguntza](#) ere baduzula.

INTERNET

[Internet](#), mundu mailan datuak komunikatzeko elkarri konektatutako ordenagailu sare multzoa da. Web-a da Internet erabiltzeko modu nagusia. Bere ezaugarrien artean:

- Etengabe eguneratuak izateagatik oso erabilgarriak diren **informazio baliabide ugari** biltzen ditu.
- Hazkunde azkarra dela eta **ez du antolakuntzarik**, horrek informazio saturazioa eragiten duelarik.
- Interneteko informazio gehiena, **ez da bere kalitatea bermatzen duen berrikuspen edo ebaluazio sistema batetik igarotzen.**
- **Informazio guztiak ez du balio**, bere fidagarritasuna eta kalitatea ez baitira berdinak.



INTERNETEKO BESTE INFORMAZIO BALIABIDE BATZUK

Interneten dagoen informazio guztiaren %95 gutxi gorabehera, ez da bilatzaileen bidez eskuragarria izaten, [Internet ikusezina edo sakona](#) deritzo.

Beraz, ezin zara bilatzaileetan lortzen dituzun emaitzetara bakarrik mugatu.

Biltegiak, biblioteka digitalak nahiz datuak, araudi teknikoak, etab. jasotzen dituzten beste hainbat baliabidetan jasotako kalitatezko informazio ugari dago.

Interneten bilatzaileen emaitzek erakusten digutena baino askoz informazio gehiago dago.



INTERNETEKO BESTE INFORMAZIO BALIABIDE BATZUK



Informazio iturri fidagarriak dira:

- **Webgune korporatibo eta instituzionalak:** informazio fidagarria eta eguneratua eskaini ohi dute, unibertsitate webguneak, Ministeritzak, ikerketa erakundeak, etab.
- **Biblioteka digitalak:** gaiaren arabera aukeratu eta antolatutako baliabide digitalak eskaintzen dituzte ([Europeana](#), [Hispana](#), [Miguel de Cervantes Biblioteka birtuala](#), [DPLA](#), etab).
- **Atari espezializatuak**, adibidez, **Engineering Village**, ingeniarietan espezializaturiko informazioarekin, **Business Source Premier**, ekonomia eta enpresan espezializaturiko informazioarekin, **PubMed**, arlo biomedikoko informazioarekin, **Education Source**, hezkuntzan espezializatua, etab.
- **Web soziala:** Blog-etara sarrerak, [Twitter](#), [Facebook](#), [Youtube](#), [Flickr](#), [Instagram](#), etab. (Web sozialarekin zuhur ibili behar zara eta webguneen ebaluazio irizpideak aplikatu).

BESTE BALIABIDEAK: BILTEGIAK



Biltegiak irakasle, ikerlari eta ikertzaileek prestatutako dokumentuak gordetzen dituzten biltegi irekiak dira, normalean lan akademikoak ere jasotzen dituztelarik. Besteen artean: [eBiltegia](#), [Arxiv](#), [CiteSeerX](#), [Europe PubMed Central](#), [RePEc](#), etab.

Egokienak aurkitzen laguntzeko, biltegi biltzaileak dituzu, [Recolecta](#), [OpenDoar](#), [OpenAire](#), etab. esaterako.



Biltegiek kalitatezko informazio zientifiko eta akademiko egiaztatua biltzen dute. [eBiltegia](#) da Mondragon Unibertsitateko biltegia eta unibertsitatean, bere ikerketa nahiz jarduera akademiko eta instituzionalaren ondorioz sortutako dokumentuen testu osora sarbide irekia ematen du.

BESTE BALIABIDEAK: DATU ETA EDUKI DIGITALAK

[Eurostat](#), [Eurolex](#), [INE](#), etab. bezalako Erakunde eta Institutio askok zure lanerako beharrezkoak dituzun informazioa eta datuak sortzen dituzte.



Ikerketako datuak ondoko biltegietan kontsulta ditzakezu: [Datasea](#), [RE3Data: Registry of Research Data Repositories](#), [Digital Curation Centre](#), [OAD Data Repositories](#), [FAIRsharing](#), etab.

Biltegi hauek [Open Science](#) mugimenduaren parte dira. Mugimendu horren helburua ikerketa zientifikoen irisgarritasuna lortzea da, eta, beraz, **ikerketaren datuak eta emaitzak** partekatzea sustatzen du, askatasunez berrerabil daitezzen.

Datu eta eduki digitalak oso baliagarriak izan daitezke gure lan eta ikerketetan; iturri fidagarriak bilatu behar dira bildu ahal izateko.



GOOGLE AKADEMIKOA

[Google Akademikoa](#) edukien nahiz literatura zientifiko-akademikoaren bilaketan oinarritutako eta espezializatutako bilatzailea da (tesiak, liburuak, laburpenak, adituek berrikusitako lanak, etab.). Testu bakoitzaren erreferentziak eta iturriak kontsultatzeko aukera eskaintzen du.



Badira [RefSeek](#) edo [Chemedica](#) bezalako informazio zientifikoa eta akademikoa eskaintzen duten beste bilatzaile batzuk.


Google Akademikoa bezalako informazio zientifikoaren bilatzaileak fidagarriak dira, kalitatezko eta egiaztatutako informazioa eskaintzen dutelako.



ZURE BIBLIOTEKA

Fidatu zure bibliotekak hautatu eta ebaluatutako baliabide eta informazioekin.

Kontsulta ezazu [Mondragon Unibertsitateko Bibliotekaren Webgunea](#). Bertan, behar duzun informazioa aurkitzeko jarraibideak jasoko dituzu eta zure ezagutza arloan egunean egoteko balioko dizu. Zure espezialitatearen **profiletik** edo aurkikuntza tresnaren profil orokorretik [bilatu](#).



ONDORIOAK

- Bilaketen emaitzak gure informazio beharren arabera ebaluatu behar ditugu, bai datu base batean edo katalogo batean aurkitu baditugu eta baita Internetetik lortu baditugu ere.
- Irizpide desberdinak erabili behar ditugu eta ez gara informazio iturri bakar batekin konformatuko. Halaber, ezingo gara bilatzaileetako emaitzetara soilik mugatu.
- Fidatu zure Bibliotekatik sarbidea duzun informazioarekin: aurre aukeraketa batetik pasatu da.



GEHIAGO JAKITEKO...

Begiratu Bibliotekako [Informazio baliabideak](#)
atala.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



Basque Culinary Center

Biblioteka

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

Enpresa Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteka

Iturripe Kanpua. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Orona Ideo Kanpua. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu